

Hitzordu

Ikastaro udatiar baten kronika beroa: «Irakurzaletasuna sustatuz: haur eta gazteentzako liburuen hautapena eta balorazioa»

Imanol Mercero

«Irakurzaletasuna sustatuz: Haur eta Gazteentzako liburuen hautapena eta balorazioa» mintegia burutu zen aurreko uztailan Donostiako Miramar jauregian, EHuko Udako Ikastaroen baitan, Galtzagorri Elkarteak antolatuta eta Itziar Zubizarretak zuzenduta. Guzti honetarako, mintegiaren prestaketan Galtzagorri Donostiako Udal Liburutegia, EHuko letren Fakultatea (Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila), EHuko Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola (Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika saila), Fundalectura (Fundación para el fomento de la Lectura, Bogotá, Kolonbia) eta Valentziako Unibertsitateko Filologia Kataluniarraren departamentuaren laguntza izan du. Bertara, Imanol Mercero joan zen, eta hona hemen guztiontzat baren hausnarketak.



Uztailaren azken egunetan geunden, uda gogo betean ari zen atean kolpeka eta Miramar jauregiko lorategitik genekusan itsasoak ezetz zioen, ez sartzeko barrura. Gu, ordea, ikastaroaren izenburuak darion morboak akuilatuta gentozen. Betidanik oso eremu labainkorra izan baita «liburuen hautapena eta balorazioa» delako hori, literaturak zalantza bat arrastaka

bai baitarama, haren gainean dugun ideia oro kontrajarri eta elkarren aurka bultzarazten duena: literatura sentimenduen lurraldera mugatuta dago ala arrazoimenaren bidez azter daiteke? Zilegi al da irizpide objektiboak proposatzea literatur lan bat ona ala txarra den esateko? Zergatik existitzen dira ondo saldu eta kritika txarra duten liburuak? Ez dakit zuek hala bizi duzuen baina niri hamaika aldiz mailukatu didate belarrarian literatura «eremu subjektiboa» dela. Bestalde, inguratu zaizkidan «subjektibozale» gehienak gremioaz kanpokoak dira, horixe da egia, baina gure artean –liburuez,

ezagutzen ditut halako iritzia duten mordoxka bat. Kontrakoa esan didatenak askoz gutxiago dira. Zer esango dizuet, nik sinisten dut irizpide objektiboen bidez irakurleak edota kritikariak obra baten gaineko juzku koherente eta inpartziala egin dezakeela, zaletasunak zaletasun, beste edonork frogatzeko eta baieztatzeke eran.

Eta jakina, ikastaroaren izenburuak pentsamendu hauek denak ekarri zizkidan gogora. «Zuei ez zaizue berdina gertatzen?» galdetu nahi nien uztailaren 26ko astelehen goiz hartan aretoa mukuru bete zutenei.



26a «Irakurle-komiteak» eta «Eredu narratiboak»

Irrika betean nengoen Fundalecturako ordezkari Janeth Chaparro eta Gemma Lluch ikusteko. Haien pentzuan utzita nuen ikastaro honen balio nagusia; gainerakoak interesgarriak ziren, bai, baina nik Kolonbiako irakurle taldeen esperientzia ezagutu nahi nuen, zein irizpide erabiltzen dituzten euren liburu gomendio ospetsuak osatzeko, nola aritzen diren, nork zer...

Eguzkiari eta itsasoari gero arte esan, eta ikastaroa abiatzeko segundo batzuk falta zirela sartu nintzen

aretoan. Hasierako formalismoak betetzen hasi zen Itziar Zubizarreta –ikastaroaren zuzendari eta Galtzagorriko lankide nekaezina, besteak beste–, beti bezain eraginkor. Han zeuden Chaparro eta Lluch ere, Gurutze Aldabaldetrekuren ondoan, azken hori ikastaroaren ezinbesteko pieza izateaz gain egun hartako hizlari ere bai baikenuen.

Lehen sarrera hark hiru egunean zehar biziko genuenaren laginarena egin zuen. Informazio trinkoa jasoko genuen, ikastaroa amaitutakoan



digestio pausatua eskatuko ziguna. Gaitegia heterogeneoa izango zen, bakoitzak nahi/behar zuena jasotzeko. Power Point bidezko irudi askotxo ikusiko genituen, baina hitza irudiaren gainean nagusituko zen... Ba horixe, trinko bezain heterogeneoak izan ziren Itziarren sarrera-hitzaldia, zein jarraian etorriko zen ikastaroa.

Nahiko atzera nengoen, izkina batean, ikusmira onarekin partaideak nor ginen zelatatzeko. Ikusi, adin guztietako neska-mutilak ikusi nituen –letretako ikastaroa izateko mutil askotxo, pentsatu nuen nire artean–, ezagun mordoxka bat eta baita aurpegi berri asko ere; nola bestela izandako matrikula kopuru handiarekin...; hiru multzo osatu nituen nire kolkorako: eskoletako irakasleak zein liburuzainak, irakasle-eskolako zein letretako ikasleak eta lehen ilarako zein han-hemenka geunden groupieak; alegia, Galtzagorriko edota liburutegietako beharginak, hizlariak eta euren hurbilekoak.

Ikastaroa orduantxe hasi zen, ikastaro guztiak joaten diren martxa bertsuan. Baten batean izan bazarete, erraz ulertuko didazue: ikasle-takigrafoak tai gabe idazlumari eraginez, mordoxka heterogeneo bat ideia nagusien ehizan, eta alferrenak, atarian banatu zituzten apunte-laburpenak koadernoan tolestu eta buruko haizeen ufadatan galduta.

Hiru egun haietan esandakoa Galtzagorriren web-orrian aurkituko duzue, baina lehen egun honetatik hiru izen azpimarragarri nituen koadernoan jasota:

Fundalectura: Irakurketa sustatzeko erakunde hau Kolonbiako papergintza eta liburugintza industriek sortua da. Halere, liburuen gomendioak egiteko orduan, euren independentzia erabatekoa omen da, Chaparrok berariaz eta bihotzez ziurtatu zigunez. Fundalectura Kolonbiako gobernuarekin lankidetzan aritzen da, irakurketa bultzatzeko plangintza estatalak sustatzen. Lluch andreak esan zigunez, ikusgarria omen da Kolonbiako

liburutegien sarea, bai eraikinek eta bai barruan dagoen materialak inbidia sortu omen zioten.

Cómo reconocer los buenos libros para niños y jóvenes: Gemma Lluch, literaturaren sustapenean espezializatuta dagoen Valentziako Unibertsitateko irakaslea, Kolonbiara joan zen Fundalecturaren irakurketa-komiteak ezagutzera. Esperientzia hura oinarri harturik eta bi urteko lanaren emaitza nagusi gisa, liburu hau atera zuten. Dударik gabe lehen mailako lan-tresna bihurtuko da liburuen balorazio eta hautapenean dihardugunontzat.

Irakurle-komiteak: Fundalectura erakundearen lan-tresna eraginkorra. Boluntario talde zabalaren astero bildurik, lanerako baldintza egokiak eskainirik, liburuen baloraziorako baliabide egokiekin, Kolonbiako irakurle-komiteek euren herrialdean haur eta gaztetxoentzat argitaratzen

dena arakatu eta sailkatzeko ardura dute. Haien emaitza sona handikoa da eta gaur-gaurkoz ez dago parekorik.

Ondoren, eredu narratiboen hitzaldia etorri zen, Itziar Zubizarretak eta Gurutze Aldabalde-trekuk emana. Bibliografia lana izan zen batik bat, Power Pointean ikusi eta liburu gozagarri haien erreferentzien zain gelditu ginen, web orriari argitaratu bitartean.

Goseak amorratzen, triapak kurrinka, diosalak saihestuz, Antiguako tabernetako pintxoak janz amaitu genuen lehen eguna.

Eta pintxoekin ari ginela, zerbitzu minimoetan ari zen neurona bakarrak behin eta berriz kantu bera xuxurlatzen zidan belarrira: bihar izango da egun handia, bihar, bihar...

Uztailaren 27a «Baloratzeko irizpideak» eta «Eredu poetikoak»

Astearte goiz hartan, bigarrenez ere gero arte esan nien eguzki-itsasoei, Miramar jauregiko lorategian gora nindoala. Beste testuinguru batean gogoz kontrako pauso astun eta baldar izango nituenak, orain desiratu eta desiragarri zitzaizkidan. Hitzaldiaren izenburua «Kalitatezko liburuak aukeratu eta sailkatzeko irizpide orokorrak» zen. Zakilixutek esango lukeen bezala, tumatxa!

Egun hartako bi saioak bezperakoak bezala zeuden antolatuta. Lehenik, Kolonbiako esperientzia eta, jarraian (euskaletan) testuen azterketa. Itziarren poesiari buruzkoa entzuna nuen, Bularretik Mintzora egitasmoarekin dabilenean teoria atal hori berori eskaintzen duelako. Halere, plazer bat. Zer esango dizuet. Haurdunalditik hasi eta bospasei urte bitartean poesiak dituen ezaugarriak eta ematen dituen aukerez halako azalpenak entzutea... Aldi berean, Ibon Egañarenak jakin mina pizten zidan, ez bainekien nondik helduko ote zion, hain irristakorra baita poesia, hain txikia bere senideen artean.

Lehen ataleko azalpenei dagokienez, sentimendu kontrajarriak piztu zitzaizkidan. Bi hizlariak sailkatzeko irizpideak banan-banan eta xehe aztertuko zituztela espero banuen ere, ez zuten halakorik egin. Horren ordez irizpideen inguruko oharrik eta gomendioak ematen jardun zuen lehenik Lluch-ek, eta bibliografia gomendatu bat erakutsi zigun ondoren Chaparrok. Zer esango dizuet. Esandakoak oso onak izan ziren, baina etsipen puntu batek hartu ninduen. Halere, hitzaldia mamitsua izan zen, dudarik ez. Lluch-ek «ezkurtuko kanon» delako kontzeptua azaldu zigun. Normalean, besterik ezean, irakurleok erabiltzen ditugun baloratzeko irizpideak nola eta zergatik sortzen diren azalduz. Oso interesgarria. Halaber liburuak aukeratzeko gurasoentzako hamar aholku ere eman zitzaizkidan, bai eta libururen bat gomendatu ere; esaterako, *La magia de los libros infantiles*. Eta jarraian, Chaparroren Power Point andana. Liburu pila, denak izugarritzko kalitatekoak. Eta halaber liburu horiek zergatik ziren liburu on ere



esan zigun. Baina irizpideak zer? Apunte-fotokopietan azaltzen ziren baieztapen andana haiek ez al zituzten berariaz irakurriko? Bada, ez.

Zorionez, eurekin ekarri zuten *Cómo reconocer...* liburua atsedendaldietan saltzeko, eta denak konforme.

Nahi dituenak eskuragarri ditu *Kalitatezko liburuak aukeratu eta sailkatzeko irizpide orokorrak* arestian aipatu ditudan iturrietan. Eurekin amaitzeko, hemen ipiniko ditut sortu zizkidaten ohartxo hauek:

Testu motaren arabera, irizpideak desberdinak dira.

Baieztapenak direnez, formulazio erlatiboa dute, hots, bestela ere formulatu daitezke. Baina euren formulazioa edonolakoa delarik ere, ukitzen duten muineko ideia ez da kengarria: nolabait esatearren, literatur alor bakoitzeko ezaugarri jakin batzuei buruz hausnartzeko bidea ematen dute.

Baieztapen hauek liburu baten ezaugarriak azaleratzeko balio dute, baina ez dira matematikako eragiketak: aztertzaileen begi kritiko inpartziala eskatzen dute. Lan-tresna gehienek bezala, emaitza egokia ziurtatzeko, erabilera egokia eskatzen dute.

Baieztapenak elkarrekin dira eraginkor, banaka eta isolaturik ez dira nahikoa liburu bati buruzko juzkua eraikitzeko. Hori bai, balorazio-fitxa osatuta, ondoren juzku inpartzial eta koherente sendoa eraikitzen da.

Pote-pintxoia 11,30ean, eta eguneko bigarren saioa: Eredu poetikoak.

Lehenik, Zubizarretaren hitzaldia eta, ondoren, Egañarena. Arestian esan dudan bezala, adinaren arabera banatuta. Lehen hezkuntzara bitarte lehenak, hortik aurrerakoak bigarrenak. Entzuten aritu nintzen, apunterik hartu gabe. Janneth Chaparro ondora ekarri nuen, boluntario aurkeztu bainintzen euskaldun ez ziren ohorezko bi entzuleetako bati aldi bereko itzulpena egiteko. Oso dibertigarria da, ondoan duzunak pazientzia eta abegi ona badu. Apur bat nekagarria gerta liteke, ordu eta erdiko hitzaldia denean, baina Chaparro andrea bizkorra da eta hitzaldiaren mamia jaso zuela ziurtatu zidan. Apunteak hartu zituen, ziurtatzen dizuet. Esandakoak interesgarriak egin zitzaizkion. Niri bezala. Hitzaldi hartako esanak osorik irakurtzeko aholkatzen dizuet. Ez dute soberakorik.

Itziarren hitzalditik:

Bularretik Mintzora: Gurasoak eta haurra. Ahoz-

ko literatura. Etendako tradizioa berreskuratzeko sortutako egitasmoa. Alorreko espezialista-talde batek gidatua. Emaizta bikainak.

Tradiziozko haur-eta sehaska-kantua: umeari hizkuntzara –eta gizamundura orobat– iristen laguntzeko baliabidea. Erritmoa. Erritmoa zaindu behar da, bertsio modernoek maiz letra zaindu dute, baina erritmoa aldatuta. Haurren premien neurrira sortutakoak izan ohi dira kanta-jolas-errima zaharrak, birfinduak mendez mende: babesema eman, mundua ezagutzen lagundu, psikomotrizitate-ariketak, hizkuntza menderatzeko baliabideak...

Egañaren hitzalditik:

1. Aurreiritziek poesia mugatu egiten dute.
2. Poesiari beldur diogu helduok, eta ez dakigu nola eskolaratu.
3. Poesiaren testu-ezaugarriek, ordea, abantailak ematen dizkiote gainerako testu moten aurrean.
4. Bertsolaritzak bete izan ohi du poesiaren lekua. Baina horrek poesia mugatu egiten du.
5. Poesia eta diziplinartekotasuna.

Entzule gutxiexago ote geunden iruditu zitzaidan. Ziurrenena atzerritarren erakarpene-efektuaren kontrapuntua. Halere, aretoa beteta zegoen.


Uztailaren 28a «Ibilbide literarioak», «Liburutegiak» eta «Mahai-ingurua»

Azken eguna. Donostian den ikastaro batera joateko bi aukera zentzuzko daude. Bizikletaz joatea da onena, hiriburuan bertan edota inguruetan bizi bazara, eta urrutitxoagokoa bazara, garraio publikoa erabiltzea. Baina etxeko lan goiztiarretan ezinbestekoa bazara, edo maindireak itsatsita gelditu bazaizkizu, edota maiteñoa ezin utzirik bazabiltza, gerta liteke autoz inguratzea. Halakoetan, Ibaetako Campusa da, nire ustez, aparkaleku onena. Noranahiko autobusak pasatzen dira bost minuturik behin eta Donostiako parking-sare garestia (garestiegia) saihesten da.

Azken eguna aurreko bietatik desberdina izan zen denean. Goiz eta arratsalde aritu ginen. Hizlariak berriak ziren eta hizketa-gaiak kriptikoak egiten zitzaizkidan (zer ote dira ibilbide literarioak?).

Gurutze Aldabaldetrek lehenik, Mari Jose Olaziregi ondoren, entzule etzanarenak eginez, apunteak koadernora tolestu nituen, eta haien esanek iradoki zizkidatenetan hegan ibili nintzen.

Aldabaldetrek Irakasle Eskolan literatura zein kaxkar dagoen azpimarratu zigun. Ia ez dago irakasgaiarik karrera osoan, ikasleek zaletasun urria



izan ohi dute... tristea. Ondoren bere irakurle-biografia kontatu zigun, ikasleen aurrean eskoletan egiten omen duen bezala, eredu emanaz. Hala eginez, bere ikasleen literatura-zaletasuna pizten saiatzen omen da. Interesgarria. Nondik sortu literatura-zaletasuna erraietatik ez bada?

Olaziregi beste eremu batzuetan ibili zen, Power Pointa bitartekari zuela. Funtsean irakurtzeko era berriez jardun zuen, internetez eta abar.

Atsedena ondoren, Aldabaldetrekuren eguneko bigarren saioa. Oraingoan, Ahatetxo itsusia ipuina abiapuntutzat erabiliz ibilbide literario bat eraiki zuen.

Jarraian, Elena Oregik Donostiako Udal Haur Liburutegia aurkeztu zigun. Xehe eta sakon. Gauza

asko aipatu zituen, baina zera azpimarratzen zuen etengabe: Liburutegia denon zerbitzurako dago, fondo bikaina du, irakurgela egokiak, eskaintza zabala, joan gaitezen eta disfruta dezagun.

Arratsalderako mahai-ingurua prestatuta zegoen. Familiar aritu ginen; areto erdia egongo ginen; lasaiago, hobeto. Goian, Lluch, Chaparro, Olaziregi eta Zubizarreta; euren aurrean, irakasleak eta groupieak geunden, ikasle gutxi ikusten ziren eta bakan horiek iheska joan ziren lehen minutuetan, hitzordu batera urgentziaz alde egingo balute bezala, halabehar-aurpegiak jarritz.

Amaitutakoan, denak lasai, musuak, esker oneko hitzak, benetako uda orduantxe hasiko zela aipatuz, elkarri iraila arte esanez...